

**AMA HIZKUNTZA BIZIKO DA.
OHAR BATZUK
IPARRALDEKO BEGITIK**

Oiartzun, 1994-12-29

Emile Larre

Ez dira protesta moduan hartzekoak nire hitzok. Euskara Batuari “bai” errana dio Euskaltzaindiak duela 25 urte. Nik ere bai. Arantzazuko Biltzarrearen egun haietantxe nuen nik ere hain zuzen *Herria*. Astekariaren kudeantza hartzen, Lafitte zenaren ondoan: ortografiatik hasi ginen berehala sistematikoki, lehen aldakuntza batzu eginez berehala gure nahikeria onaren seinale; gaineratekoa etorriko zela urratska, pausoka: irakurleak ere behar baitzuen segitu, ulertu lehenik eta ez galdurik ibili, nahasi eta lotsatu. Alde horretarik, batua guri ez zaigu egundaino dudan eta zalantzan ezartzekoa iduritu baizik euskaldun guztien gaurko eginbidea: euskara bat guretzea eta plazaratzea, bata idazkeran bederen, hots, euskaldun guziera erabilgarri zaiena, ororentzat berdina eta gu denen bilgarria.

Horiek hola, nahi dut hastetik erran, gure Iparralde xumetik, ez direla minik gabe egiten holako ebakuntza eta operazioak. Eta hau ere: ez daitezkeela lan horretan denak izan berdin onargarri. Funtsean, hori aspaldi ikusia du Euskaltzaindiak: hau bera bermatu delarik xinaurri lan honetan: Euskalkien Atlasaren egiteko xokoz xoko ibiliz herriko hegal guzietan mañetofioia eskuan bere langile ordezkarien bidez. Hor daude orain bilduak gure herri-euskara berekin daukaten zintak, Xuberoko mendietarik eta Bizkaiko itsasportu xokoetarainoko aberaldi, zirto eta azentuekin. Horiek orde eta *Euskerako Aktek* erakutsiko dute ondikotz gure ondarearen aberastasuna: alde batetik badugula mintzaira bakar bat, hau oraino berdintzen ari, denentzat ahal bezain ulergarria; bestetik gure herrietako euskalkiak, hauek beren iturriko uraz aberats eta bakoitzak bere moduan derabiltzanak, berezitasun, ahoskatze ta oro.

* * *

Ama hizkuntza: Nor da gaur Ama?

Kontuz ibil gaitezen hitzekin: Oxobi olerkariaren denboran, hots, azken bi mende hauen bide-kurutzean, badakigu nor zen Ama: etxeko andrea, haur alde

baten ama maizenean, kristau legean bizi eta haurrak araberan altxatzen eta guziz, euskalduna, beste neholako nahasturarik gabea. Ama-hizkuntza ere badakigu zein zen orduan: gizalditik gizaldira gure lurretan mintzatu zen hura bera, bere betiko garbi eta dorpe hartan xoil-xoilik edo halatsu, etxe guzietan erabilia herri hartan guzian.

Ama ez baitzen, egundaino edo halatsu, bere etxetik atera, baguenen Urepeleko euskara, eta Behorlegikoa, nola ere dudarik gabe Goizuetakoa, eta Gaztelukoa, eta Elantxobekoa... Orain aldiz kontuak dira: ama Bidarrain sortua, Kanbon lan egiten eta Baigorri bizi. Edo bere ama aita baino gutiago ikusten duela haurrak lanaren gatik. Goazen orduan aita-euskaratik: bakarrik, hau xuberotarra izaki... Batek bestea balio dutela euskalki horiek guziek, gauza jakina. Hemen dago ordea koska: zein euskalki izanen da haur horren herri-mintzaira, eta izanen ote da hor, ala herri-euskararik ala euskalkirik? Hor bai baduke batuk bere lekua; edo, maiz gertatzen dena, berek eginen duten euskalkien bateratze bat?...

Gaurko egunek eta bizimoduek dute hori ekarri. Lurretik bizi zen atzoko jendeak ez du holakorik ezagutu. Abere artean bizi ziren orduan, lur-solas zituztelarik beren auzoarteko gogoetak, eleak eta harremanak, laborantzak eta hazkuntzak ekartzen dituzten solasbide, kezka eta bestekin. Horra zertaz hasiak zituzten beren pentsakera eta ateraldiak, eta herri-mintzaira.

Orain ez da batere hola. Auzoarte berean, nekazaria da oraino ere bere baserriar mintzaira betikoa daukana, eta, oraino, ez beti. Beste auzoa aldiz teknikalari izanez hura ofizioz, maiz kanpoan dabila eta erdalduna du bere munduaren erdia. Ez ote dira, harren haurrak, lehenik erdarala lurratuko direnak? Ez ote dira ikusten familia osoak ere, euskaraz batere axolatu gabe, erdal mintzairala jo dutenak haste-hastetik, euskararik badela ere ez axolatuz. Goazen polliki halere: ez dira beti holakoen haurrak izanen gibelatuenak, atzeratuenak, euskararendako: bihar, orobat, bilduko du mutil edo neska horrek, euskararen kotsua, birusa, bere lagun taldean. Gaur ikusten ez denik ez baita, badira holakoak, euskararen ikasten behin hasi-ta, irakasle bilakatzerat ere heltzen direnak. Nire galdea orduan: non zuten haiek herri-euskalkia? Nongo ama-mintzaira den haiena?

Hor erran dudana, ez da bakarrik hirietako karrika edo inguruetan gertatzen. Baditugu orain Garaziko semeak, baserri euskaldun garbiko ume, Garaziko euskara "xu"-kari maitagarriaren itxurarik ere ez baitu haien euskarak. Zer gertatu zaie bada? Etxean ez dute euskaraz (eta Garaziko euskaraz) besterik entzun. Baina eskola ta kolesiotan ikasten zabiltzala, edo beren artean haurrak, gazteak, maiz erdaraz mintzo, burasoetarik urrun edo aparte, ez dute beren etxeko esaldirik ikasi, hots, adin batetarik goiti ez da izan haientzat herri-hizkuntzarik. Geroztik, euskararen kotsua zinez bildua bai, baina etxetik kanpo dute berriz euskara mintzatu eta asko ikasi ere baina ez etxekoa, ez amarena. Badut ustea hori bera gertatzen dela Senperetik eta Urruñara, hala-nola entzu-

ten baitira hango gazteak baxenabartarren “gira” eta “zira”-ka mintzo, berek ez zutelakoan “gare, gara” eta holakorik ikasia, beren etxeko mahaietan zutena. Gauza bera ere gertatzen da xuberotar seme-alabetan beren xubererari buruz. Eta ez bakarrik euskaldunetan: badakit Bardozeko gaskoin semea, bere etxeko gaskoinera utzirik, euskara ikasi duena, halaxeko ikasketetan ibiliz.

Zer bada? Uko egin behar ote dugu, gaskoinek beren aldetik eta guk euskaldunek guretik? Galdua ote dugu herri-mintzairaren partida? Beharko ote du euskarak mintzaira-hil bilakatu? Badakigu holakorik gertatu zitzaizola aspaldi latinerari eta beti badagoela latinera baina mintzaira hil bezala, nehongo herri batek ere ezduelarik mintzo, salbu nazioarteko apaizek Lurdesen edo Erroman elgar ulertzea gatik, edo irakasle batzuek unibertsitate batzuetan?

Ez gara gu hortan. Erran nezake gu euskaldunek badugula besterik herrian, ama-hizkuntzaren lekua helduetan hartu duten hiru mailetakoa. Denetako lehena *bertsularitza*. Honek iduri du Hegoaldeko gauza dagoela zenbait urte honetan. Ez balinba! Euskal Telebista hor dugu Iparraldetik ere gero-ta-hobeki hartzen duguna. Eta zer erran, gero-ta-gehiago, bertsulari hoberenak Iparralderat deitzen dituzten ostatu eta taldeez? Bertsularitzarekint, baina aldi honetan beste alderat, Xuberotik ateratuz, horra *Pastorala*, beti berdin prezatua. Azkenik *Antzerkia* ere aipa nezake herri-euskararen sail honetan. Horiek guziek, eta ez dut aipatu ere *kantua*, diote euskara herrikoi bati bere betiko bidea zabaltzen, gaurko Euskara Batua onaren artetik.

Ama-hizkuntzatik antzerkiraino goratuz, ez genuen nahiko amaren goxotasuna gal zezan hitzak eta ez dezala gal nehondik ere, herrikoi behar baitu egon gure teatroak taulean gainean, bertsularia bere bertsuarekin herrikoi dagoen bezala. Baina bada halere, bere berrikoitasunean berdin, ahoskatu hitzaren errespetu bat, galtzerat utzi behar ez dioguna. Hori da *ahoskera* edo *ahozkatzeko manera*. Hor badugu, bederen guk iparraldeko zer erran eta zer deitor. Hitz batez erraiteko, aldatzen ari zaiku Iparraldean, bide haundiz, euskararen ahoskeratzea. Hola segituz, azken hogeitaz urte hauetan bezenbat galtzen badugu beste hogeitaz urtez, zer geldituko ote da euskararen soinu, hotsean, amaren ahoskera hartarik? Ez naiz hanbat mintzatuko bi r dun hitzen ahoskeraz, gaitz hori biziki aspalditik sartua baitugu Iparraldean. Pentsa: nire aita zenak erdara guti zekien eta guk erraiten dugun rreka bazuen berezkoa, nik bezala: *irria, nigarra*, ez ez mingaina eta hortzen artean zarraskatuz, baizik zintzur zokoan, frantsesek bezala. Hori galdutzak utziz, huna min gehiago egiten diguna azken 20 urte hauetakoa delakotz eta frantseskeria hutsa: r bakarra bikoizturik erabilia frantses erakasle ez-jakinen eraginez eta aita-ameri behatu gabe, hauek balio guti baitute herriko maixuaren aldean: Irigoien, Etchegaray, Marticoena, Irigaray (hau irrigarri legala ahoskatua). Tikikeria lidurike, amaren eta aitaren ahoskera galtzea ez balitz. R bakunaren horretan, hau ere behar ginuen salatu. Huna laburzik: “etzakala hori hunki” erranen zidan amak beti: Orain ez da hola erraiten, baizik “Ez, zakala hunki”. Eta halaber erraiten zidan. “Eztuk hori egia”. Orain aldiz: “Ez duk egia”. Euskaltzaindian hola idazteko erabakia hartzean

erran zen bai: “Ez da” idatzi eta ezta ahoskatzeko. Baina hori ahanzten da, edo ez ikasi.

Hortako nahi ukan dugu hemen aipatu.

Gaitz bera dute holako kezka eta minek salatzen. Egoera ere ez dugula hanbat aldekoa, bereziki Iparraldean. Ofizialtasunik ez daukagu euskararentzat, nahiz beti zenbait gehiago ardietsiz goazin. Eta inguramenak gaitu oraino gutiago laguntzen, gaurko egoerarekin: haurrak bi urtetako eskolarat doatzi, gu sei urtetan joan ginen, lehenik euskara ongi ikasirik. Orain aldiz ez ote da haurra amaren besoetan baino maizago, erakasle erdaldun batenetan, leku ttipia ukanen baitu zinez haren bizian eta hezkuntzan ama-euskarak? Eta hastapena baizik ez da hori: “Haur” hura eskoletan izanen da... hogeitau urtetan oraino. Arte horretan zer zorte egina izanen zaio etxeko euskarari eta zer estimu? Badakit zenbaitek euskal irakaskuntzetan izanen dutela beren hautua egina. Hanbat hobe. Aldiz bestek?

Zer egin beraz?

Goitik hoin guti lagundurik, hautuak egiten baditu gehiengo batek egoera horri doazkionak, zerbait salbatuko da. Zertako ez hori sinetsi? Leihoak goikoek guti idekitzen-eta, beherekoek berek dituzte idekitzen hasiak eta, gero, noizbait, ondorio batzu agertzen dira. Herritarrek ari dute ikusten herriko gauzen balioa, mintzaira barne. Ohartzen ari direla beren eskutan daukaten indarrari. Maila guzietan, bakoitzak badu bere egitekoa:

— *Ama* hizkuntza bat izaitekotan bihar, amak dira beharko, euskaldunak, euskaraz egiten dutenak ez bakarrik haurrari, hau ttikia deno baina bizi-lagunarekin oro entzuten baititu haurrak eta sukaldean, eta mahainean, telebista erdaldun ausartegi baten artetik, edo gainetik.

— *Gazteak*. Beharbada zuek, adin gaixko batean, zuen nortasuna erakutsi nahi, edo behar, bazinuten, zuek hautatu bidetik joanez eta ez beste batzuek erakutsitik, orain iragana da adin hori. Horra etorria geroaren denbora, geroko zimenduak ateraz gaur, biharko behar izanen diren plegu berriekin.

— *Sozietatea*. Den bezalakoa da hau. Guk egin dugun bezalakoa gisa guziz eta guk merezi ginuena. Halere guri dago gaurko mundua. Hobetzeak, aldakuntzak, gure menturan daude. Nork zituzten atzoko hutsune batzu bete? Euskal irakaskuntzak, maila guzietakoak sortuz, eta kargudun batzueri begiak idekiz, ez zutenean hauek ikusten, edo ez ikusi nahi. Badute ainitz eginik. Eta gehiago egitekorik. Herritarrek berek.

Gisa guziz, ama baitzen hemengo solasgaia, ama-hizkuntzarekin, ez ote dute egundainotik amek egin haundiena? Gure euskaldun izaitean? Eta oraino, ez zakitelarik zer zen ere feminismoa!

Herria astekarian:

Ama hizkuntzaren gai hau gurea dugu *Herria* astekarian, egun aipatu bi bideak dituelarik bere eginak gure kazetak, aurten 50. urteburukari berrikatu ditugunak.

Hiru gauza zizkion *Herriari* eskatuak Beñat Oihartzabal euskaltzain ki-deak: omenaldi haren aintzineko egunetan. Lehenik, izan zadin euskaraz idatzia. Bigarrenik Iparraldeko kazeta izan zadin, hots gure toki gostu batekilakoa. Eta azkenik euskaldunen artean gertatu kanbiamendueri deliberatuki jarraikia.

Ama-hizkuntza ez da hor hitzetan aipu. Halere agertzen zuen hor aski garbiki gure adixkideak gure herri hau duela bere Ama gure euskal kazetak. Ama nolako, semea halako. Eta ere amak semea nola nahiko, semea hala izango, bere ahal guziaz. Txosten labur honetan aurkeztu dugun itxuraren eredu nahi ginuke gure astekaria: bere amari osoki leiala, amaren semea, batetik, dena ama, hots hor ama hizkuntza duena. Bestetik aldiz bere haurrideen maitasunez betea: eta hor euskara batua!